

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Arabako Artziniegako udalerrian, A-2620 eta A-4624 errepideen egokitzapen eta urbanizazio lanak egiteko baimena

Espediente-zenbakia: AO-B-2016-0029

Eskatzailea: Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Saila.

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak, Uraren Euskal Agentziako Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoari baimena eskatu dio A-2620 eta A-4624 errepideen plataformak zabaltzeko, ezpaloiak, euri-urak drainatzeko hodiak eta askotariko zerbitzuak eginez. Halaber, Artziniega ibaiaren gainean dagoen zubiaren taula zabaldu nahi da eta Artziniega errekaaren ibilguan dauden oztopo zahar batzuk kendu. Ibaiaren polizia-eremuan eta ubidean bertan egingo dira lanak, Artziniega udal-mugarteko (Araba) Arteko Gure Ama ikastetxetik eta haren kirol instalazioetatik hurbil.

Hori guztia orok jakin dezan ematen da argitara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epean, eskatutako baimenak kalteak eragiten dizkietela irizten dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten epe horren barruan, Bizkaiko Uren Zerbitzuan, Bilboko Urkixo Zumarkalea 36an, Bizkaia Plaza Eraikina, 7. Solairua. Espedientea han izango dute, nahi duenak azter dezan.

Bilbon, 2019ko otsailaren 12an

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoaren burua
MARIAN ALONSO PRIETO